


KONTSUMO OHITURAK AZTERTZEN



Eskolako Agenda 21



Sexua: gizonezkoa
 emakumezkoa
 Adina: 25 bitartekoa
 25-45 45-60 60-90

1- Oro har zein motatako dendatan egiten dituzu erosketak?
 azokan komertzio txikietan supermerkatuetan

2- Nola egiten dituzu erosketak?
 egunean egunekoak astekoak

3- Erosketak egiterakoan begiratzeko al duzu produktuaren jatorria?
 beti batzuetan inoiz ez

4- Salmenta puntuetan ba al dago zure ustez jatorriari buruz nahiko informazio?

Azokan bai ez ez dakit
 Denda txikietan bai ez ez dakit
 Supermerkatuetan bai ez ez dakit

5- Zein hiletan erosten dituzu ondorengo produktuak?

	LETXUGA	BABARRUNAK	GEREZIAK	GAZTAINAK	PATATA	AZA
Urtarrila						
Otsaila						
Martxoa						
Apirila						
Maiatza						
Ekaina						
Uztaila						
Abuztua						
Iraila						
Urria						
Azaroa						
Abendua						

LH 3. zikloa - DBH I. zikloa



KONTSUMO OHITURAK AZTERTZEN



6- Baloratu etik 5era garaian garaiko produktuak kontsumitzearen garrantzia, kontuan izanik 5 dela puntuazio handiena eta 1 txikiena:

- produktuen prezioa
- produktuen kalitatea
- produktu osasuntsuak
- bertako nekazariak
- ez dauka garrantzirik
- denda eta supermerkatuen biziraupena

7- Nola lortzen da urte osoan barazkiak edukitzea?

- negutegietan, eta produktu kimikoak erabiliz
- Klimari esker posible da urte osoan edukitzea
- nekazal monolaboreen lurralde zabalak erabiliz

8- Zure ustez, aurreko belaunaldiarekin konparatuz, ba aldaگو ohitura eta jakintzarik produktuak norberak kontserbatzeko?

- bai, mantendu da
- gauza batzuk mantentzen dira, beste asko ez
- ez, galdu egin da
- ez du garrantzirik, dendan badaude

9- Egungo gizartearen kontsumo ohiturak hauetako zerbait galarazten duela uste al duzu?


- barietateak
- baserriak
- kultura
- biodibertsitatea
- paisaia
- ekonomia



GEURE KONTSUMO OHITURAK AZTERTZEN



Eskolako Agenda 21



Ariketa honetan zure elikaduraren jarraipena egin beharko duzu. Horretarako osa ezazu ondorengo taula jarraian dituzun argibideak kontuan izanik (barazkiak eta frutak bakarrik aztertuko ditugu):
Argibideak:

DATA: jarraipena egiten duzun eguna eta hilabetea.

OTORDUA: X batez markatu zein otorduz ari zaren: gosaria,

bazkaria ala afaria. (Egun bakoitzeko 3 terro beharko dituzu: bat, gosariarentzako; bestea, bazkariarentzako; eta hirugarrena, afariarentzako).

ELIKAGAIA: zer jaten duzun dagokion otorduan.

NON EROSLA: X batez markatu azokan, denda txikian ala supermerkatuan erosi duzun janari bakoitza.

JATORRIA: janariaren jatorria zein den, hau da, bertakoa ala kanpotik ekarritakoa den.

DATA	OTORDUA			ELIKAGAIA	NON EROSLA			JATORRIA
	gosaria	bazkaria	afaria		azokan	denda txikian	supermerkatuan	

LH 3. zikloa – DBH I. zikloa



GEURE KONTSUMO OHITURAK AZTERTZEN



DATA	OTORDUA			ELIKAGAIA	NON EROSIA			JATORRIA
	gosaria	bazkaria	afaria		azokan	denda txikietan	super-merkatuan	

Eskolako Agenda 21

LH 3. zikloa – DBH 1. zikloa



INGURUMEN ETA LURRALDE ARLOAREN SAILA
DEPARTAMENTO DE MEDIOAMBIENTE Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO




PRODUKTUAK AZTERTZEN



Eskolako Agenda 21

LH 3. zikloa



1-Honako zerrenda kontuan izanik, sailka itzazu jaki hauek kontsumitzen dituzun urteko sasoiaren arabera:

Patata, tomatea, ilarra, berenjena, azenarioa, babarruna, leka, porrua, alkatxofa, apioa, artoa, gardua, kalabazina, zainzuria, brokolia, erremolatxa, arbia, kalabaza, neguko eskarola, udazkeneko aza, zainzuria, ziazerba (espinaka), zerba (azelga), perrexila, piperra, azalorea, kalabazina, tipula, letxuga, baratxuria, neguko aza, endibia, laranja, arana, limoia, mahatsa, mandarina, marrubia, meloia, sandia, kiwia, brinoia, gereziak, alberretxikua, melokotoia, pikua, udarea, sagarra, aguakatea, kakia, gaztainak, masustak.


NEGUA	UDABERRIA	UDA	UDAZKENA

PRODUKTUAK AZTERTZEN




2-Ondoren, nekazaritza intentsiboa eta estentsiboaren arteko ezberdintasunak adierazi zaizkizu. Bi marrazkiak begira itzazu eta jarraian dituzun galderak erantzun.

NEKAZARITZA ESTENTSIBOA EDO EKOLOGIKOA



NEKAZARITZA INTENTSIBOA



- 3-Zergatik uste duzu fruta eta barazki batzuk urte osoan saltzen direla?
- 4-Onura ala kalte egiten diote nekazaritza intentsiboak eta estentsiboak biodibertsitateari? eta gure osasunari?
- 5-Joan zaitez denda batera eta eros ezazu bertako barazki bat, eta barazki mota bera, baina kanpotik ekarritakoa. Prezio bera al dute?
- 6-Zure ustez, barazki horietako zeinek izan du kostu handiagoa baratzetik jaso denetik dendara iritsi den arte? Zergatik?
- 7-Zergatik ote da bertako produktua garestiagoa?
- 8-Zure kontsumo ohiturak ezagutu ondoren, biodibertsitatean eta osasunean ondorioak ba al dute? Kaltegarria izanez gero, zerbait egin al dezakezu?
- 9-Zeuen diagnostikoaren eta kaleko inkesten ondorioak landu ondoren, zer eskatuko zenioke Udalarari?

BARAZKIEN EREITE-EGUTEGIA







Eskolako Agenda 21

LH 3. zikloa – DBH I. zikloa



Barazkien ereite-egutegi bat prestatu behar duzue. Horretarako, enbalatzeko papera erabil dezakezue. 2 m-ko luzera eduki behar du gutxienez. Paperean lau zati bereiziko dituzue, urte sasoi desberdinak adierazteko: udaberria, uda, udazkena, negua. Urte sasoiak, berriz, hiletan banatuko dituzue (eredua begiratu).

 NEGUA			 UDABERRIA			 UDA			 UDAZKENA		
Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Abuztua	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua



INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAIA
DEPARTAMENTO DE MEDIOAMBIENTE Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO



BARAZKIEN EREITE-EGUTEGIA



Eskolako Agenda 21

Jarraian, gure eguneroko jatorduetan jaten ditugun barazki eta fruten zerrenda jarri dizuegu.

Alkatxofa, apioa, arbia, artoa, azalorea, azenarioa, baba, babarruna, leka, baratxuria, berenjena, brokolia, endibia, errefaua (rabanoa), erremolatxa, gardua, ilarra, kalabazina, kuia (kalabaza), neguko aza, neguko eskarola, patata, pepinoa, perrexila, piper berdea, piper gorria, porrua, tipula, tomatea, uraza (letxuga), zerba (azelga), ziazerba (espinaka).

Hauek guztiak egutegian kokatu behar dituzue ereiten diren urteko sasoiaren eta hilen arabera. Horretarako, bidali dizkizuegun irudi eta pistekin txarteltxoak osatu behar dituzue. Irudiaren atzekaldean pista duzue. Egutegian irudiko barazkia ereiten den hilean kokatu beharko duzue.

Ekintzaren helburua da produktu bakoitzak bere garaia duela jakitea, nahiz eta denda batzuetan produktu batzuk urte guztian erosteko aukera dugun, batik bat supermerkatuetan. Produktu hauek urte osoan kontserbatu ahal izateko prozesu luze eta garestia jarraitu behar izan dute; beraz, garaian garaiko produktuak kontsumitzeak badu bere garrantzia, besteak beste, askoz ere osasuntsuagoak direlako.

Ekintza hau egin ondoren egutegia denboraldi batean eduki dezakezue eskolako pasilloetan.

LH 3. zikloa – DBH I. zikloa

